

Bategiterako txosten politikoaz ados jarri dira PSOE eta EE

PSCK duen antzeko lotura izan dezake Espainiako PSOErekin

Euskadiko Ezkerra eta PSOEren ordezkariak ados jarri ziren atzo goizaldean alderdi berriaren oinarria izango den txosten politikoan. Batzorde eragileetan aztertu ondoren Madrilen onartu zen agiria Biltzar Ttipia eta PSEren Batzorde Nazionalaren oniritziaren zain geratu da.

I.U. / BILBO

Euskadiko Ezkerra eta PSE-PSOE bateratzeko batzordeak oinarritzko adostasuna lortu zuen atzo Madrilen. Partiduaren «izaera nazionala» eta Espainiako PSOErekin izan beharreko loturaz arazoak agertu baziren ere, bi aldeak egoera desblokeatzeko formulak aurkitu zituzten asteazkeneko goizaldera arte iraun zuen bileran.

Euskadiko Ezkerrako iturriak pozik agertu ziren, sozialistek lehenagoko zenbait planteamentutan atzera eginez, PSOErekiko «harreman marko independente» bat onetsi zutelakoan. Iturri horiek ziurtat eman zuten alderdi berriak Ferrazekin izango duen lotura ez dela «lehenago PSEk zeukana» izango. Hortaz, berriro ere Kataluniako PSCKren ereduia plazaratu da bideragarri gisa.

Alderdiaren izaeran aurreratu bazen ere, atal ugari geratu da airean oraindik, horien artean


Olarrak ez zuen deliturik egin Mujika Mengelerekin parekatzean

BILBO

Joxemari Olarra HBko Mahai Nazionaleko kide eta parlamentariak ez zuen deliturik egin Enrique Mujika Herzog Justizia ministro ohia Mengele mediku naziarekin parekatu zuenean, EAEko Auzitegi Nagusiaren erabakiaren arabera. Auzitegi honek ministro ohiaren kontrako desakoto iraingarria egitearen delituaz absoltu zuen Joxemari Olarra parlamentaria, Vasco Press agentziak atzo aditzaera eman zuenez.

Auzitegiaren erabakiaren arabera, Mujika Herzog ministro ohiaren kontrako akusazioek ez zituzten gaintitu funtsezko eskubideen mugak, hau da, adierazpen askatasuna eta askatasun ideologikoaren eskubideen mugak. Era berean, Auzitegiaren uestez, ez zen iraintzeko asmorik izan.

Mujika Herzogek, Justizia ministro izandakoak, 1989ko abenduaren 19an Madrileko Kongresuan euskal presoan



Benegas eta Jauregi, PSOEren aldeko solaskideak.

SIMAL

EAEko alderdiak Madrilen bezko talde parlamentarioa izango duen ala ez.

PSOE Alderdi berriak izango dituen estatuak, antolaketa ereduia eta izena bera ez baidan daude oraindik.

Horretaz ari dira bi alderdien batzorde mistoak lanean egun. Alderdi berriaren izenari —PSV-EE litekeena— PSOE gehitzea edo ez da eztabaida mahaian dagoen beste gai bat. Benegas eta Jauregiaren partidua horren aldekoa izanik, ez du iritzi berbera aurkitzen oster beste aldean.

Astearteko arratsaldea eta asteazkeneko hiru bat ordu eraman zuen bileran alderdi bien arteko desfaseak saihestea erabaki zuen. Hortaz, aurrerantzean EE eta

PSE-PSOEek bateratze prozesu parekidean eramango dute. Onartze faseak batera eramateak larunbaterako deiturik zegoen EEren Biltzar Ttipia atzeratzea ekar dezake, PSE-PSOEren Batzorde Nazionala biltzeko dataren zain.

Atzoko bileran PSOEtik Txiki Benegas, Ramon Jauregi eta Nicolas Redondo Terreros izan ziren. EEtik Juan Maria Bandres eta Jon Larrinaga.

Epaiketa bat bertan behera utzi dute abokatuei arrazoia emanez

DONOSTIA

Hiru euskal presoren kontra bihar egitekoa zen epaiketa bertan behera utzi du Entzutegi Nazionalak, abokatuek argudiatu ondoren ezin izan zutela presoekin kontaktuan jarri epaiketa prestatu ahal izateko. Abokatuen eskaerak aintzat hartu ditu beraz Entzutegiak. Izan ere, Madriletik urrun dauden kartzeletan egon direla hiru presoak, orain gutxi hurbildu dituztela eta ez dutela beraiekin komunikatzeko astirik izan azaldu zioten abokatuek epaimahaiari. Alegazio hauek onartu eta Joseba Koldobika Artola, Elias Fernandez eta Fernando Vicenteren kontra egitekoa zen epaiketa bertan behera utziko erabakia jakinarazi zuen atzo Entzutegi Nazionalak.

Euskal presoan abokatuek alde batera utzi dute momentuz Entzutegi Nazionalako plantoa. Udaz geroztik ez ziren epaiketara joaten presoekin komunikatzeko zituzten oztopoak salatzeko. Orain bi hilabeteko epea eman dio Entzutegiari «defentsa eskubiderako beharrezko baldintzak bermatzeko». Epe ho-

rretan epaiketa bertan behera utzi edo atzeratzeko eskatuko diete epaileei, eta presoan iritzia jasotzen saiatuko dira.

Abokatuen uestez, epaiketak egin aurretik presoak Entzutegi Nazionaletik hurbil dauden kartzeletara eramateko urriaren 26an hartu zen erabakia positiboa da, «berehalako konponbidea posible egiten du». Bestalde, Baltasar Garzon Entzutegi Nazionalako epaileak datorren astearteko deitu du deklaratzera Isidro Garalde Bedialuneta, 'Mamarru'. Joan den urriaren 21ean estraditatu zuen Frantziak Isidro Garalde.

BESTE PRESO BAT JIPOITU

Javier Martinez Izagirre presoak berriz, jipoia jaso zuela Goardia Zibilaren aldetik salatu dute Amnistiaren Aldeko Batzordeek. Lehenengo aldiz Alcalako kartzelako patioan kolpatu zuten sei goardia zibilek, Puerto de Santamariara eramatera zihoazela. Bidean bigarren paliza jaso zuen. AA-Bek beren kezka agertu dute presoek trasladoetan zehar Goardia Zibilaren aldetik jasaten dituzten palizengatik.



Urtero bezala, badakizu zeuk kreditoa duzula EUSKAL PIEL-en eta, gure finantzabideari esker, zure erosgaia hileroko epe erosotan ordain dezakezula.

BEDIA
ORDUTEGI, JARRAITUA:
ASTELEHENETIK LARUNBATERA:
10-etatik 20.30-etara.
IGANDE ETA JAIEGUNETAN:
10-etatik 14-etara.

EUSKAL PIEL

BEDIA • BILBO • IRUÑA • DONOSTIA • GASTEIZ
Bizkaia • Somera, 37 • Zapateria, 37 • Easo, 25 • Fueroak, 14